

Ekonomia eta merkataritza

K.a. 133.-72. urte bitartean, Erromako errepublikaren gerra zibilen garaian eta Penintsulako gudarosteei ordaindu beharra zela eta, Erromak Ebroko haraneko zenbait hirik beren dirua egiteko baimena eman zuen eta diruaren erabilera garatzen hasi zen ordura arte trukean oinarritua zen ekonomian.



1.- Eszena honek zerga biltzea irudikatzen du. Hain zuzen ere, zerga-arloa agertzeak –zergak gehienbat txanponez ordaindu behar ziren– eta merkataritzaren hazkuntzak –askoz eremu zabalagoa harturik eta lehenago inoiz ez iritsitako neurrian– orokortu egin zuten diruaren erabilera Euskal Herrian.

2.- Zaku hauek laborea daukate, lurreko emaitza nagusia. Alorrik onenak *agger* deiturikoan zeuden: Arabako Lautada, Nafarroako Erribera eta Akitaniako aran zabalak. Lehengaien ustiapenan, mea baliabideak nabarmendu ziren. Kantauriko burdina eta galena (Zarautz eta Arditurri, Aiako Harria) ustiatu zituzten, bai eta Ereñoko kareharririk gorria, marmolaren ordezkoa arkitektura obretan, hala nola Arkaia (Gasteiz) edo Iruña/Veleiako termetan.

Burdina: Euskal Herrian burdinarekin zerikusia zuten lantegi asko ziren. Mea fintzea zen haietako gehienen eginkizuna. Lantegi edo burdinola horien artekoak ziren Forukoa (Bizkaia), Alariakoa (Arrastaria/Urduña), Las Ermitaskoa (Getaria, Araba) eta Iruña/Veleiakoa. Plano hau Foruko instalazioen egitura bati dagokio.

3.- Euskal Herrian erabilitako zeramika asko kanpotik ekartzen zen, hala nola Tarraconense-ko arruntak edo Tritium Magallum eremuko *sigillata* direlak oak. Baziren beste zenbait jatorritako zeramikak: Italia, Galiak eta Asia Txikia ere. Elikaduraren sektoreari dagokionez, hona ekartzen zituzten gairik ohikoenak: olioak, ardoa, arrain gazituak eta ostrak, kopuru handitan hauek. Gainera, baziren kontsumo txikiagoko beste produktu batzuk, hala nola olibak, aranak, gingak, pikuak, edo mertxikak. Era berean, janzkera pertsonalean, germaniar jatorrizko elementu metalikoak agertu ziren (*fibulae* edo kisketak, gerriko apaingarriak, belarriak).